



Taller **KE** Tailerra

Vitoria-Gasteizko udalak utzitako materiala



**PLASTIKOZKO
BIRIKAK**

3

**BIGARREN
ESKUKO KEA**



Birziklatutako materiala erabiliz egin daiteke lantegia. Behar dira: kotoia, 2 litroko ur-botila bat eta 5 litroko beste bat, guraizeak, zinta itsaskorra eta zigarro bat.



**Kotoia 2 litroko
botilan sartuko
dugu, tabakoaren
“K” ikusteko.**



**Ondo itxi behar
dira bi botilak,
bigarren eskuko
kea girora atera
ez dadin.**

- **Kez beteko ditugu bi botilak, zigarro bakar batek ke kantitate handia askatzen baitu.**



- **Bigarren eskuko kea duen botilan elementu kutsagarri asko metatu dira.**

• Sinestezina da kotoian zenbat alkitran-hondar ikusten den tapoia kentzen dugunean.

• Modu honetan agerian geratzen da zigarro bakar batek zer nolako kaltea eragin dezakeen.



- Cooximetraoa da giroan dagoen karbono monoxidoaren kantitatea neurtzeko erabiltzen den tresna.



1. botilan erretzaileak arnasten duen kea pilatu da.
2. botilan, berriz, bigarren eskuko kea metatu da.